

Zumaiako
Udala



ZUMAIA
BIZITZEKO
DA

Zumaiako Ludoteka

2025/2026

Zumaiako Ludoteka
943143264
ludoteka@zumaia.eus



ZER DA LUDOTEKA?

6-12 urte bitarteko haurrentzako zerbitzua da. Ez da eskola, baina jostailu eta jolasaren bidez, haurraren nortasuna garatzea helburu duen zerbitzua da eta umeei zuzeneko arreta jasotzen duten lekua.

ZER ESKAINTZEN DUGU?

HAURRENTZAT :

- Astelehenetik ostiralera, 17:00etatik 19:30era
- Ekintza gidatuak egunero
- Ekintza bereziak (festak, irteerak...)



- LudoKeta 10-12 urte bitarteko (LH4-6) haurrentzako programa da
- Hilabetean bi ostiraletan LudoKeta 19:30-20:30 bitartean irekita egongo da
- Beraientzat egokitutako ekintzak izango ditugu

FAMILIENTZAT :

- Informazio zerbitzua
- Jostailuen mailegua
- Familientzako ekintzak
- Jostailu erakusketa

NOIZ IREKIKO DA LUDOTEKA?

- Ludoteka urriaren 1ean irekiko da.
- Urriaren 1etik 3ra ate irekiak izango dira eta adina duen edonork parte hartu ahal izango du bertan. Hala ere, ikasturtean zehar, ludoteka ezagutzeko aukera egongo da.
- LudoKeta, berriz, urriaren 10ean hasiko da.

IZEN EMATEA

OHARRA :

Izena emateko garaian, Zumaian erroldatutako haurrek izango dute lehentasuna. Gainerakoek, urriaren 6tik aurrera eman beharko dute izena.

- Haur bakoitzak **bi egun aukeratuko** ditu
- Ikasturteko kuotak :
 - Ludoteka: 60 €
 - LudoKeta (10-12 urte): 13,45 €
 - **DBE-GLL onuradunak:** ordaindu beharrik ez
 - **Familia ugarien kasuan:** diru sarreraren arabera hobaria

Familia ugarien kasuan, hobaria jasotzeko eskaera eginda eduki behar da Udalean

Hobaria eskatuta baduzue, dagokizuen %aren arabera diru sarrera egin							
	%10	%15	%20	%30	%40	%50	%90
Ludoteka	54€	51€	48€	42€	36€	30€	90€
LudoKeta	12,11€	11,44€	10,76€	9,42€	8,07€	6,72€	1,35€

Ludotekako kuota ordaintzen duten LH4-6 bitarteko haurrek ez dute LudoKetako ordaindu behar.

KUTXA ES30 2095 5174 91 1061601620

- Ekarri beharrekoak:
 - Argazki bat (berriak direnek)
 - Izena emateko orria beteta eta sinatuta
 - Ordainagiria
 - DBE-GLL agiria, beharrezkoa bada

Izen-ematea ez da behin betikoa izango beharrezko guztia ekarri arte.

NOIZ?

Izen ematea irailaren 24tik urriaren 2ra izango da, biak barne.

NON?

Hiru aukera dituzue:

1. Dena e-mailez bidali daiteke, dokumentuak zumaia.eus webgunean egongo dira zintzilikatuta. Dokumentuak pdf formatuan bidali behar dira, ez dira argazkiak onartuko. ludoteka@zumaia.eus
2. Ludotekako buzoian, paper guztiak sobreak sartuta.
3. Ludotekan bertan aurrez aurre honako egunetan:

		9/24	9/25	9/26
		11:30-13:30	11:30-13:30	11:30-13:30
9/29	9/30	10/1	10/2	
11:30-13:30	11:30-13:30	16:00-19:30	16:00-19:30	

Norbaitek hiru aukera hauetan ezin baldin badu, hezitzaileekin adostuko da beste modu bat. Horretarako, beraiekin jarri harremanetan.

ZOZKETA

- Egun aukeraketa nahiaren arabera egin behar da, zenbakiak jarritz (zein egun nahiko zenituzke tokatzea? Egun horiei "1", "2" eta "3" jarri lehentasunaren arabera).
- Haur bakoitzari zenbaki bat emango zaio eta egun aukeraketa nondik hasiko den zozketatuko da (adib.: 32 zenbakia ateratzen bada, 32.enetik hasiko gara egunak osatzen, egun guztiak bete arte). Posible den heinean, zuek aukeratutako egunak errespetatuko dira.
- Zerrenda urriaren 4an argitaratuko da, ludotekan eta zumaia.eus webgunean.
- Urriaren 6tik aurrera haur bakoitza dagozkion egunetan etorriko da ludotekara.
- Egun bakoitzeko itxaron zerrenda osatuko da.
- Inolako aukerarik gabe geratuz gero, dirua itzuliko zaizue.
- Ezinbestekoa izango da izena ematea ludotekan parte hartzeko.